

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5467

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez handitzen baita agindu honetan adierazitako zenbatekoa: eskola-garraioko banakako dirulaguntzak, desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako, ikasle horiek dagoen ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 7ko Aginduaren bidez, desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egin da, ikasle horiek dagoen ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute 2022-2023ko ikasturtean.

Agindu horretan, baliabide ekonomikoei buruzko 3. artikuluan, honako hau dago ezarrita:

1.– Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 4.554.000 euro bideratuko dira.

2.– 1. paragrafoan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, laguntzak jasotzeko esku-bidea duten eskabideen zenbatekoa kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak konprometitu gabeko aurrekontu-baliabideen arabera. Halakorik gertatuz gero, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hezkuntza Sailak horretara bideratutako 4.554.000 euroko guztizko zenbatekoa ez da nahikoa eskabide guztiei erantzuteko; beraz, beharrezkoa da zenbateko hori handitzea.

Hori dela eta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 430.000 euro gehitzea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 7ko Aginduaren 3.1 artikuluan kontsignatutako zenbatekoari; horrenbestez, deialdi horretara, guztira, 4.984.000 euro bideratuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 15a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.